



URRETXU eta ZUMARRAGAKO
GABONETAKO
XXXV. KRISMA LEHIAKETA 2023

OINARRIAK

1. Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeek har dezakete parte lehiaketa honetan.
2. Hiru maila bereiziko dira:
 - A MAILA: LHko 1. eta 2. mailakoak
 - B MAILA: LHko 3. eta 4. mailakoak
 - D MAILA: LHko 5. eta 6. mailakoak
3. Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.
4. Krisma egiteko materiala egile bakoitzak aukeratu ahal izango du.
5. Lana egiteko garaian kontutan izan behar da zer den krisma bat: Gabonak zoriontzeko tarjeta. Beraz, lana gehienez A4 neurria duen kartulina, kartoia, papera edo antzeko material batean eginda egongo da.
6. Lanaren atzeko aldean ondoko datuak azaldu beharko dute:
 - 1.- Izen-abizenak
 - 2.- Ikastetxea, maila, adina
 - 3.- Helbidea eta telefonoa
7. Lan guztiak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean aurkeztu beharko dira, azaroaren 24a baino lehen.
8. Epaimahaiaren erabakia 2023ko abenduaren 15ean, arratsaldeko 6etan, Urretxuko liburutegian ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean sari banaketa egingo da.
9. Epaimahaia Zumarragako eta Urretxuko Udaleko Kultura Batzordeek izendatuko dute.
10. Sariak honela banatuko dira: Maila bakoitzean (A, B eta D) sari hauek emango dira:
 1. saria: diploma eta opariak
 2. saria: diploma eta opariak
 3. saria: diploma eta opariak
11. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.
- 12.- Saritutako lanak bi udalen webetan jarriko dira ikusgai.
- 13.- Norbaitek bere lana berreskuratu nahi izanez gero urtarrilaren 31 arte izango du aukera.